

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5693

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 23koa, Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordearena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuorde ohiaren 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez zati batean diruz lagundu ziren edo aurrekontu-zuzkidura faltagatik diruz lagundu ez ziren proiektuei, 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 17.4 artikuluan jasotakoaren arabera, Europar Batasunak finantzatutako suspertze, eraldatze eta erresilientzia planaren esparruan (Next Generation EU).

EGITATEAK

1.– 2022ko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen (agindu horren bidez, Euskadin hondakinei buruzko araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta dirulaguntzen deialdia egin zen, eta 2022ko irailaren 21eko Aginduaren bidez aldatu zen, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU)). Ebazpen hori 2023ko maiatzaren 11n argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2.– 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren laugarren ebazpen zatiak honela dio:

«Laugarrena.– Laguntzari uko eginez gero edo laguntzaren bat atzera botaz gero diruz lagunduko direnen lehentasun-ordena zehaztea, bai zati batean diruz lagundutako proiektuena, bai aurrekontu zuzkiduraren faltagatik diruz lagundu ez zirenean (IV. eranskina)».

Horren harira, 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren IV. eranskinean honako hau jasotzen da:

Deialdiaren erregulazioan jasotako aurreikuspena betetze aldera, Balorazio Epaimahaiak erabaki du ezen, 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 16.4 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatuz gero, lortutako zenbatekoa proiektuetara bideratuko dela, lehentasun-ordena honekin:

– Lehenik eta behin, 4. lerroan zati batean diruz lagundutako edo diruz lagundu gabeko zazpi proiektuak diruz laguntzeko erabiliko da, proiektuen puntuazio-ordenaren arabera, eta hori guztia lehen adierazitakoa kontuan hartuta, hau da, lerro horrek herritarrengan eragin handiena duten proiektuak babesten dituela. Soberakin posible hori banatzeko unean, kontuan hartu beharko da 4. lerroan Next Generation UE eta PIMA Residuos 2021 funtsei dagozkien zuzkidurak daudela.

4. lerroa: bilketa-instalazioei (garbiguneak, esaterako), hondakinak (ontziak, papera, eta abar) bereizteko eta sailkatzeko instalazioei, lehendik dauden tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak hobetzeari eta berreskuratutako erregai solidoak (BES) prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak.

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (euro)	Gehieneko dirulaguntza (euro)
013-PROT-2021	Berziklatu S.L.	Hondakin handiak birziklatzeko prozesuaren berrikuntza.	41,00	298.184,74	400.000,00 ¹
029-PROT-2021	Bizkaiko Zabor Berziklategia S.L.	Ontziratzea.	40,00	0,00	143.089,86
106-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	Briketak: garbigune mugikorra. Hondakindegira eramaten den hondakin kopurua 0 izatea eta, hola, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00	112.838,39
107-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	Briketak: Powerscreen sailkapen-bahea. Hondakindegira eramaten den hondakin kopurua 0 izatea eta, hola, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00	400.000,00
108-PROT-2021	Ekotrade RCDS S.L.	Briketak: BESak fabrikatzeko tobera eta birringailua. Hondakindegira eramaten den hondakin kopurua 0 izatea eta, hola, erregai fosila ordeztzea.	38,50	0,00	400.000,00
062-PROT-2021	Debagoieneko Mankomunitatea	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak Debagoieneko Mankomunitateko Garbigunean biltzeko eta biltegitzeko proiektua.	38,00	0,00	25.083,38
083-PROT-2021	Santurtziko Udala	Hondakinak biltzeko zerbitzurako pabiloia eraikitzea.	26,50	0,00	200.422,85

¹ 108-PROT-2021 espedientea Ekonomia Zirkularraren Programa 2021 eta PIMA Residuos 2021 programetatik datozen soberakinen bidez baino ezin izango da diruz lagundu.

– Bigarrenik, 1. lerroan finantzaketa handiagoa jaso dezaketen proiektuak finantzatzeko erabiliko da, proiektu bakoitzeko mugak honela zabalduz:

- 50.000 euroko muga 100.000 eurora igoko da.
- 200.000 euroko muga 400.000 eurora igoko da.

Proiektu horiek ere puntuazioaren arabera finantzatuko dira, soberakina amaitu arte.

– Eta, hirugarrenik, 2. lerroaren zuzkidura handitu egingo da, finantzaketa handiagoa jaso dezaketen proiektuak finantzatzeko, proiektu bakoitzeko muga 1.000.000,00 eurotik 2.000.000,00 eurora igoz. Kasu honetan ere, proiektu bakoitzak lortutako puntuazio-ordena errespetatuko da.

3.– 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaz geroztik, zenbait entitate onuradunek uko egin diote emandako laguntzari, eta, beraz, 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren IV. eranskinean jasotako proiektu hauek finantzatzeko nahikoa geldikin dago:

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Puntuazioa	Emandako dirulaguntza (euros)	Gehieneko dirulaguntza (euros)
013-PROT-2021	Berziklatu SL	Hondakin handiak birziklatzeko prozesuaren berrikuntza.	41,00	298.184,74	400.000,00
029-PROT-2021	Bizkaiko Zabor Berziklategia SL	Ontziratzea.	40,00	0,00	143.089,86

ZUZENBIDE OINARRIAK

I.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduaren bidez, Euskadin hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen (2022ko irailaren 21eko Aginduak gero aldatu zuen agindu hori); bada, haren 17.4 artikulurekin bat etorriz, entitate onuradunen batek uko egiten badio emandako dirulaguntzari 2023ko ekainaren 30a baino lehen, edo jarduera data hori baino lehen ez hasteagatik ezeztatzea erabakitzen bada, ebazpenak zehaztuko du zer lehentasun-ordenatan lagunduko diren diruz bai zati batean diruz lagundutako proiektuak eta bai aurrekontu-zuzkidurarik ez edukitzeagatik diruz lagundu ez zirenak.

II.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak eskumena du onuradunak eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak zein diren behin betiko zehazteko, 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Honako hauek ikusirik: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Agindua, zeinaren bidez Euskadin hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdia egiten den; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Agindua, zeinaren bidez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, zeinaren bidez hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdia egiten den; Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuorde ohiaren 2022ko abenduaren 27ko Ebazpena, zeinaren bidez ebazten baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia, zeinaren bidez Euskadin hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdia egiten den (2022ko irailaren 21eko Aginduaren bidez aldatua) Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan –Next Generation EU–; otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikazio orokorreko gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean jasotako entitateei dirulaguntza ematea, bertan xehatzen diren zenbatekoak, eta bertan xehatzen diren proiektuetarako.

Bigarrena.– Onuradunek bete egin beharko dituzte Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 18. artikuluan jasotzen diren betebeharrak (agindu horren bidez, Euskadin hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten da, eta agindu hori 2021eko irailaren 21eko Aginduaren 4. artikulua aldatu zuen).

Hirugarrena.– Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratzeko agintzea, dirulaguntzak emateko prozedura orok izan behar duen publizitatearen printzipioa betez.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 23a.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

ERANSKINA

4. lerroa: bilketa-instalazioei (garbiguneak, esaterako), hondakinak (ontziak, papera, eta abar) bereizteko eta sailkatzeko instalazioei, lehendik dauden tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak hobetzeari eta berreskuratutako erregai solidoak (BES) prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak.

Kodea	Eskatzailea	Proiektua	Gehieneko dirulaguntza (euro)	Emandako dirulaguntza (euro) 2022-12-27ko Ebazpena	Emandako dirulaguntza (euro) Ebazpen hau
013-PROT-2021	Berziklatu, S.L.	Hondakin handiak birziklatzeko prozesuaren berrikuntza.	400.000,00	298.184,74	101.815,26
029-PROT-2021	Bizkaiko Zabor Berzikategia, S.L.	Ontziratzea.	143.089,86	0,00	143.089,86